


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %2,7 igo ziren 2008ko urtarrilean

Azken hamabi hilabeteetan (2007ko urtarriletik 2008ko urtarrilera) eraikuntzaren kostuak %3,7 igo dira.

EAEn eraikuntzako kostuen indizeak %2,7ko igoera izan du 2008ko urtarrilean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %3,7raino igo da, EUSTATEN datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2008



Iturria: Eustat

2008ko urtarrilean, lan-eskuaren kostua %4,5 igo zen; lehengaien kostuak, berriz, %1,9.

Eraikuntzako azpisektorearen lehengaien kostuak %2,0ko hazkundera izan du aurreko hilabetearen aldean, eta Obra zibilarenak %1,6 gehitu dira. Aipatu azpisektore bi horien urtetik urterako bilakaera kontuan hartuz gero ikusten da biak gehitu direla baina modu ezberdinean: eraikuntzako lehengaien kostuak %3,0 hazi dira, eta obra zibilekoak, %5,3.

Urtarrilean prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: karea, igeltsua eta eskaiola (%5,0), zementutik eratorriak (%4,4), zementu artifiziala (%2,8), zura eta kortxoak (%1,5), metalezko arozgintza (%1,4) eta egiturak eta galdaragintza (%1,4), besteren artean. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan dituzte: petroliotik eratorriak (%-0,9), olio eta koipeak (%-0,9), pintura eta bernizak (%-0,6) eta asfalto- produktuak (%-0,5).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: petroliotik eratorritakoak (%28,8), asfalto-

produktuak (%20,9) eta beira (%16,7). Aitzitik, urteko prezioetan (2008ko urtarrila, 2007ko urtarrilaren gainean), murrizketak izan dituzte: olio eta koipeak (%-4,3), burdina eta altzairua (%-3,7); egiturak eta galdaragintza (%-0,5) eta energia elektrikoa (%-0,2).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2008ko urtarrila.

GOIBURUAK	INDIZEA 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	134,5	2,7	3,7	2,7
ERAIKINAK	134,3	2,7	3,4	2,7
OBRA ZIBILA	135,4	2,6	5,0	2,6
LEHENGAIEN KOSTUA	130,3	1,9	3,4	1,9
ERAIKINAK	130,2	2,0	3,0	2,0
OBRA ZIBILA	130,4	1,6	5,3	1,6
LAN-ESKUAREN KOSTUA	144,5	4,5	4,5	4,5

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp